

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko martxoaren 20tik martxoaren 24rako astea

---

## **INGURU MAKROA:**


- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: PMI EUROGUNEA



### Datuaren analisisia

Alemanian, PMI konposatua otsaileko 56,1etik 57,0ra igo da, eta analisten aurreikuspenak gainditu ditu. Inkestan ikus zitekeenez, fabrikatzaileen jarduna 71 hileko maximora bizkortu zen, eta zerbitzuen sektorekoa azken 15 hiletako hazkunde-tasarik altuena izan zen. Ildo beretik, Frantziako PMI konposatua 55,9tik 57,6ra igo zen (aurreikusitakoa 55,6 zen). Kasu honetan, manufakturen sektorea 52,2tik 53,4ra igo zen, eta zerbitzuen sektoreak ere hobekuntza izan zuen. Eurogunean, PMIa 56,7 puntutan kokatu zen, otsaileko 56 puntuen ondoren. Euroguneako zerbitzuak zein industria 71 hiletan izan duten mailarik altuenean daude, eta horrek ondorioak ditu oinarrizko bi faktoretan: inflazioa eta enplegua.


### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### ERRESUMA BATUA: KPI



### Datuaren analisia

Erresuma Batuko KPIa aurreikusitakoa baino gehiago hazi zen, eta urte arteko tasa % 2,3koa izan zen, analisten adostasunaren gaineratik (% 2,1). Hiru urtetik gorako epean lehenengo aldiz, inflazioak Ingalaterrako Bankuaren (BoE) % 2ko helburua gainditu zuen. Estatistikako Bulegoaren arabera, prezioen igoera liberaren devaluazioaren ondorio da, Brexitaren bozketatik % 17 jaitsi baita, bai eta petrolioaren prezioaren igoeraren ondorio ere. Azpiko inflazioa, produktu energetikoak eta elikagai freskoak kontuan hartzen ez dituen hori, % 2 igo zen. Ingalaterrako Bankuak, kide guztiak bat etorri ez arren, interes-tasak % 0,25ean mantendu eta astebetera iritsi da argitalpen hau.

### Adierazlearen azalpena



KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.



# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ETXEBIZITZEN SALMENTA



### Datuaren analisia

Otsaileko etxebizitza berrien salmenten datuak gora egin zuen, zazpi hileko maximoraino. Beraz, ondorioztatu daiteke etxebizitzaren merkatuaren berreskurapenak ez duela etenik izan, prezio altuak eta inbentarioak gorabehera. % 5,3ko hazkunderetik (% 3,7tik gorantz berrikusia), % 6,1eko hazkundera pasatu ginen, esperotako % 0,7tik oso gora. Gainera, urte arteko tasa 2016ko hil berekoa baino % 12,8 handiagoa da. Bigarren eskuko etxebizitzaren salmentari dagokionez, otsailean aurreikusi baino gehiago jaitsi ziren (% 3,7 urtaroen arabera doitua, esperotako % 2,5eko jaitziera baten aldean). Hala ere, otsaileko salmenten erritmoa iazkoa baino % 5,4 handiagoa da oraindik.

### Adierazlearen azalpena

Etxebizitza Berrien Salmenten Indizeak salmenta-konpromisoa daukaten etxebizitza eraiki berrien kopurua neurtzen du. Etxebizitza berrien salmenten mailak higiezinaren merkatuko joerak eta altzari eta etxe-tresna elektrikoaren kontsumitzaileen bultzada ekonomikoa eta erosketa-ekimena erakusten dizkigu.

Bigarren Eskuko Etxebizitzaren Salmenta-indizeak hilean itxi diren salmenten tasa neurtzen du, etxebizitza berria, jabekidetzera eta bigarren eskuko kooperatibena. Bigarren eskuko etxebizitzaren proportzioa etxebizitza berriena baino handiagoa denez merkatuan, adierazle erabilgarri bat da higiezinaren sektorearen joerak zehazteko.

# INGURU MAKROA

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
03/27	Alemania	IFO enpresen egoera	--
03/27	Alemania	IFO aukerak	--
03/27	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	20.5
03/27	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	--
03/28	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	54.0
03/28	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
03/28	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	14
03/29	Japonia	Hileko xehekako salmentak	% 0.5
03/29	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	--
03/29	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
03/30	Espainia	Urte arteko KPIa	--
03/30	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	--
03/30	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	--
03/30	Alemania	Urte arteko KPIa	--
03/30	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
03/31	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	--
03/31	Japonia	Langabezia	% 3.0
03/31	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.2
03/31	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 4.0
03/31	Frantzia	Urte arteko KPIa	--
03/31	Frantzia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
03/31	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
03/31	Alemania	Langabezia-tasa	--
03/31	Erresuma Batua	Urte arteko BPGd	--
03/31	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	--
03/31	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	57.0
03/31	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	98.0
03/31	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
03/31	Estatu Batuak	Aurreikuspenak Mich. U.	--

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK:

Aste honetan, Europako burtsen balantzea negatiboa izan da, Italiako eta Espainiako indizeak kenduta. Wall Streeten galerak handiagoak izan ziren, eta urteko asterik txarrena bizi izan zuen. Gorakorretan, emaitza mistoak. Beste behin, merkatuek ingurune politikoan jarri zuten arreta osoa. AEBetan, Donald Trumpek bere programa ekonomikoa, eta batez ere hitz emandako zerga-erreforma aurrera ateratzeko izan dezakeen gaitasunari buruzko zalantzek merkatuaren ezkortasuna areagotu zuten. "Obamacare" erreformatzeko errepublikarren artean izan zuen laguntza falta izan zen iturburu (azkenean, ostiralean bere asmoetan atzera egin behar izan zuen). Europan, Frantziako hauteskondeei begira, populismoaren gorakada moteldu dela ikus daiteke. Hautagaien arteko lehenengo eztabaida egin zen telebistan, eta Macronek lortu zuen garaipena. Bestalde, Erresuma Batuek iragarri zuen EBtik ateratzeko prozesua martxoaren 29an hasiko dela. Makro ingurunean, Europan jarduera eta konfiantza datu onak izan genituen; AEBetan aldiz, mistoagoak izan ziren datuok, baina eragin eskasa izan zuten merkatuetan.

## ERRENTA FINKOA:

Frantziako hauteskundearen inguruko azken gertaeren ondoren, Europak tentsio politiko txikiagoa bizi izan zuen, eta ondorioz, periferikoetan errentagarritasunak jaitsi eta arrisku-primak murriztu ziren. Espainian, 10 urterako tasa % 1,69raino jaitsi zen (-% 0,19), eta arrisku-primak 129 op-tan itxi zuen astea (-% 0,15). Alemanian, errentagarritasunek gora egin zuten kurbaren tarte motz eta ertainetan, eta luzeek apur bat behera egin zuten -bund % 0,40 (-3op)-. AEBetan, hitz emandako zerga-erreformak martxan ez jartzeko aukeraren aurrean piztu den sentimendu ez horren baikorrak inbertsiogileen erosketaren aldeko mugimenduan lagundu zuen. Gauzak horrela, 10 urterakoak 9 op egin zuen bera, % 2,41eraino. Kredituak okerrera egin zuen pixka bat, eta bere diferentzialak handitu egin ziren.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisetan, euroak balioa irabazi zuen dolarraren aldean, Europako aurreikuspen politikoak hobetu direlako eta, iragan asteko Fed-en bileraren ondoren, Ipar Amerikako dibisaren ahuldadearen ondorioz. Liberak, aldiz, balioa irabazi zuen, aurreikusitakoaren gainetik zegoen KPlaren datua ezagutu ondoren, horrek BoEren hurrengo erabakietan izan ditzakeen ondorioak aintzat hartuta. Yenak balioa irabazi zuen eta babesgune izan zen. Lehengaietan, AEBetan petrolio gordinaren inbentarioen hazkundeak petrolioaren prezioaren beherakadak (-% 1,43) eragin zituen. Urrearen balioa % 1,15 igo zen aste horretan.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Local)	1.422,60	-1,18	4,28
IBEX 35	10.309,40	0,62	10,24
DJ EURO STOXX 50	3.444,15	-0,12	4,67
DJ STOXX 50	3.126,94	-0,48	3,87
FTSE	7.336,82	-1,19	2,72
S&P 500	2.343,98	-1,44	4,70
Dow Jones	20.596,72	-1,52	4,22
NASDAQ	5.828,74	-1,22	8,28
NIKKEI 225	19.262,53	-1,33	0,78
MSCI EMERGENTES (Lo)	51.551,55	-0,06	8,19
MEXBOL	49.083,85	1,01	7,54
BOVESPA	63.853,77	-0,55	6,02
SHANGHAI	3.423,77	1,00	5,36
Rusia Rts Moscú	1.124,66	1,15	-2,40
Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,74	0,03	0,03
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,20	-0,07	0,07
EE.UU 2 AÑOS	1,26	-0,06	0,07
ALEMANIA 10 AÑOS	0,40	-0,03	0,20
ESPAÑA 10 AÑOS	1,69	-0,19	0,31
EE.UU. 10 AÑOS	2,41	-0,09	-0,03
ALEMANIA 30 AÑOS	1,15	-0,03	0,20
ESPAÑA 30 AÑOS	2,93	-0,19	0,31
EE.UU. 30 AÑOS	3,01	-0,10	-0,05
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	75,39	5,49	3,35
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	292,55	16,70	3,85

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,08	0,54	2,44
Yen / Euro	119,78	-1,05	-2,65
Libra/ Euro	0,86	-0,27	1,19

Materia Primas	Nivel	%Variación Semana	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	50,49	-1,43	-8,88
Oro	1.243,45	1,15	7,91

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.